# MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

## ADEMGI

Eskola kirolako entrenatzailea da Amaia. Eskubaloian punta-puntan ibilitakoa da eta duela urte batzuk esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten. Orain eskolako haurrekin aritzen da, tartean Ane Piratarekin. Patakon entrenamendua ikustera etorri da gaur.

IRRIEN LAGUNAK + BIZIPOZA

*elkarlanean*







Testua: Amagoia Mujika. Marrazkiak: Jose Anjel Lopetegi


ESKLEROSI ANIZKOITZA DAUKAT ETA HORREK SORTZEN DIT NEKEA. ZAILA DA ULERTZEN, BAINA BATZUETAN SEKULAKO AKIDURA SENTITZEN DUT, JASANEZINA. TRAKESTU EGITEN ZAIT PAUSOA, NORMALEAN IZATEN DITUDAN SINTOMAK AREAGOTU EGITEN DIRA ETA GELDITU BEHARRA DAUKAT, DERRIGORREZ.
AGIAN KIROLA EGITEARI UTZI BEHARKO ZENIOKE, EZTA?
ZERGATIK? NORMALEAN 30 BAT MINUTUKO ATSEDENA HARTU ETA BUELTA EMATEN DIOT EGOERARI. NIK EZIN DUT KIROLA EGIN GABE BIZI, SEKULAKO MESEDEA EGITEN DIT GORPUTZEAN ETA BURUAN. NIRE NEURRIKO KIROLA EGIN BEHAR DUT, HORI BAI.
KIROLA ONA DA, BAINA BAKOITZAK BERE NEURRIKOA EGIN BEHAR DU, ESKLEROSIA IZAN EDO EZ. ASKOTAN IKUSTEN DA JENDEA NEURRIRIK GABE KIROLEAN JO ETA SU. HORREK MESEDE BAINO KALTE GEHIAGO EGITEN DU, SEGURU.


DENA ONDO, BIKOTE? AMAIA, ONDO ZAUDE?
BAI, PRIMERAN. ATSEDEN PIXKA BAT HARTZEKO BEHARRA DAUKAT. BESTERIK GABE. LAISTER NAIZ ZUEKIN BERRIRO.
LASAI ANE. BITARTEAN NIREKIN ARITUKO ZARETE. BANOA.


PATAKON, ZUK EZ DAUKAZU IDEIARIK!
AULKITIK BEGIRA EGON NAIZ ETA EZ DIRUDI HAIN ZAILA!
AULKITIK BEGIRA DENA DA ERRAZA!




## BIZIPOZAko elkarteak

ADEMGI: Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkartea.

AFESTTA: Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazoen familien Elkartea.

AGIPASE: Gipuzkoako guraso bananduen elkartea.

AMPGYL: Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkartea.

ARNASA: Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkartea.

ASPANIF: Guraso elkartea, euren umeak erbi ezpaindun edo ahosabai hautsiekin jaioak izaki eta, batipat, Euskal Herrian jarduten duena.

ASPANOGI: Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartea.

AURRERA ATERA: Animalien laguntzazko terapiaren bidez bazterturiko kolektiboen aurrean laguntza fisiko eta emozionalak lantzen ditu.

BANAIZ BAGARA: Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.

BEROA: Gipuzkoako harrera familien elkartea.

BIHOTZEZ: Kardiopatiadun haurren familien Elkartea.

BIAK BAT: Elbarritasun bat duten lagunei eta gizartean bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.

CHERNOBILEN LAGUNAK: Ukraniako Doviria gizarte etxearekin lan egiten du Gipuzkoako elkartea.

CHRYSALLIS EUSKAL HERRIA: Adingabe Transexualen Familien Elkartea.

DRAVET: Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.

ETIOPIA UTOPIA: Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.

FSDPV: Euskadin down sindromea duten familien elkartea.

GEHITU: Berdintasun Sozialaren defentsan lan egiten dute.

GIZAKIEN LURRA: Laguntza zuzena babesik gabeko haurrei. Politika, arraza eta konfesionaltasuna kontuta hartu gabe.

GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA: Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa Gipuzko.

GOIERRIKO SAHARAREN ALDEKO LAGUNAK: Sahara herriaren alde lan egiten duen elkartea.

GURE NAHIA: Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkartea.

GURE SEÑEAK: Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkartea.

HIRU HAMABI: Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkartea.

JUNEREN HEGOAK: Beharra duten beste haurrei laguntzeko sortutako elkartea.

KALE DOR KAYIKO: Ijito Kultur Elkartea.

PAUSOKA ELKARTEA: Beharizan bereziak dituzten haurren gurasoak.

SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA: Ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzen du ikastoletan.

UME ALAIA: Adopzio Familien Elkartea.

ULERTUZ: Bizkaiko Lurraldean entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta gazteei eta horien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkartea.

Harremanetarako 647355352 / leire@bizipoza.org
**www.bizipoza.org**